



5.1 JARDUERA: FUNTZIOAK ETA GRAFIKOAK ERABILI

Helburua: jarduera honetan etxebizitzaren prezioaren (eurotan) portaera azaldu nahi da bere neurriaren (metro koadro) arabera. Jarraian erakusten diren 14 etxebizitzaren datuak dauzkagu:

	A	B
1	Prezioa	Azalera
2	319.840	49,47
3	364.800	58,25
4	376.000	60,39
5	456.000	73,25
6	382.400	74,32
7	468.800	81,29
8	456.000	83,61
9	584.000	86,86
10	472.000	89,88
11	464.000	90,49
12	616.000	104,70
13	808.000	120,77
14	680.000	130,06
15	664.000	139,35

1. Y (prezioa) X-rekiko (azalera) dispertsio grafikoa sortu
2. Y (prezioa) X-rekiko (azalera) beste dispertsio grafiko bat sortu non erregresio zuzena adieraziko den.
3. *Microsoft Excel*-ek edo *OpenOffice Calc*-ek eskaintzen dituen funtzio/eragileak erabiliz:
 - a. Oinarrizko estatistiko deskriptiboak kalkulatu (batezbestekoa, desbideraketa tipikoa, maximoa, minimoa, aldagaien arteko korrelazio koefizientea...)
 - b. Karratu txikiaren arrunta (KTA) bitartez buruturiko estimazio baten bitartez lorturiko emaitzak aurkeztu, non prezioaren portaera etxebizitzaren azaleraren arabera azalduko den.
 - c. Zerrenda bateak jasoriko prezioak, estimatuak eta estimazioan lorturiko hondarrak erakutsi.
4. Lorturiko hondarra grafikoki adierazi.
5. KTA estimatzaileen bitartez estimaturiko bariantza eta kobariantza matrizea idatzi.